

GIL 117 Galea lurmuturreko tolestura sinklinala



Airetiko argazki zaharra, sinklinala erakusten duena.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 22' 26,98" N

Long.: 3° 2' 8,09" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 497.117,07 m

Y: 4.802.364,02 m



Nola iritsi

Hartu Galeako errepidea. Itsasargiraino iristen da, eta golf-zelaia inguratzen du. Amaieran, oinezko bide bat dago.



Sinklinalaren hego-alpea; ikusten da estratuak iparralderantz okertuta daudela eta, hondoan, estratu bat beste aldera okertuta dagoela, hegoalderantz. Halaber ikusten da behean, uraren mailan, *slump* motako tolesak daudela.

Deskribapena

Oiz-Galea lurmuturra sinklinala Eusko-Kantauriar arroak Euskal Arkuan dituen egitura handien elementu tektonikoetako bat da. Eskualdean ezagutzen diren hiru toles nagusietako bat da. Haren trazadura axialak N120 norabidea du, eta ardatza subhorizontala da. Tolesak dekametrikotik hektometrikora bitartekoak dira; alpeak luzeak eta zuzenak dira, eta txangak biribilduak. Tolestura hau Eozenoaren ondokoa da.

Sinklinalaren nukleoan azaleratzen diren materialak ondo ikusten dira Galea muturretik Asbiribiltza muturrera bitartean dagoen kilometro baino gutxiagoko tartean. Erdi Luteziarreko (Eozenoko) flysch kareduna da, lodiera zentimetrikoko bankuetan txandakutzen diren kalkarenita, tuparri eta kareharri nummulitedunez osatua. Okerdurak xehe aztertuta, ikusten da Galea lurmuturretik gertuen dauden geruzak iparralderantz okertzen direla eta Tunelbokatik aurrera, berriz, hegoalderantz okertzen direla. Era horretara, Oiz mendiraino luzatzen den sinklinal bat definitzen da. Itsasotik, sinklinalaren ebaketa ikusgarri bat begiztatu daiteke senadian; angelu handiko faila batek ebaki du sinklinala, eta alderantzizko faila gisa birjokatu du. Halaber, flyschean bretxa intraformazionalen tartekatze metriko batzuk ageri dira.

Ibilbidean, nummulite-ale onak ikus daitezke. Gainera, senadietan hondartza kuaternarioak ikusten dira, labe garaien zepaz osatuak (GIL 96).

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 90, GIL 132, GIL 49, GIL 44, GIL 96, GIL 35, GIL 93, GIL 118, GIL 91, GIL 26.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 118, GIL 119, GIL 120, GIL 121, GIL 122, GIL 123, GIL 124, GIL 125.



Lehen planoan, ipar-alpeko estratuak ageri dira, hegoalderantz okertuak. Atzean, estratuak kontrako alderantz okertuta daude.

Slump motako toles intraformazionalak hego-alpean.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa		●		
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- *MAGNA*, 37. zk.
- *EVE* 37-IV zk.